

ELKARTEAREN ESTATUTUAK

LEHEN KAPITULUA

IZENA ETA LEGE-ARAU BIDEA

1. artikulua.- “EIBARKO TOKIKO ENERGIA-TEK EIBAR” izenarekin, irabazi asmorik gabeko elkarte bat eratu da, Elkarteko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan eta Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean xedatutakoari jarraiki.

Aipatutako legetako aginduek eta Estatutu hauek —haiekin kontraesanean ez badaude— arautuko dute Elkartea; baita gobernu-organoei balioz hartutako erabakiek —Legearen edo Estatutuen aurkakoak ez badira— eta aplikatzekoak diren erregelamenduzko xedapenek ere.

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua.- Elkartek **HELBURU** hauek ditu:

- Energiaren jasangarritasunari laguntzea, Eibarko udalerriko bizilagunek eta dende energia berriztagarria ekoiztu eta kontsumitu dezaten sustatuz.
- Udalerriko bizilagunak energia berriztagarrien erabiltzaile eta autokontsumitzaile gisa ahalduntzea.
- Irabazi finantzarioak baino gehiago, ingurumen-onurak, onura ekonomikoak edo sozialak ematea Elkarteko kideei eta bertan parte hartzen duen udalerriri.
- Herritarren kontzientzia sustatzea energia-jasangarritasunaren kulturaren, eta administrazio publikoek, bereziki udal-administrazioek, hori garatzeko beharrezkoak diren politika publikoen garapenean parte har dezaten sustatzea.
- Autokontsumo partekatuko erregimenean ustia daitezkeen instalazio fotovoltaikoen inplementazioa sustatzea.
- Energia fotovoltaikoa ez den beste iturri batzuen bidez energia berriztagarria sortzearekin, mugikortasun iraunkorarekin, energia berriztagarri termikoekin, energia-eraginkortasunarekin eta eskaeraren kudeaketarekin lotutako ekimenak pixkanaka sartzeari.
- Energiarekiko kalteberetasun-egoerak saihesten laguntzea

- Jarduera egokiak gauzatzea, elkarteko kideen etxebizitzetan eta lokaletan egiten den elektrizitate-kontsumoan %100 berriztagarria izateko.
- Ekimen hauek garatzen laguntzea landa-eremuko udalerrietan edo jendez husteko arriskuan dauden udalerrietan.
- Herritarren parte-hartzea sustatzea tokiko trantsizio energetiko batean, Europako Itun Berdearen arabera, 2050ean Europako Batasunean neutraltasun klimatikoa lortzeko.
- Hiri eta komunitate jasangarriak lortzearekin zerikusia duten Agenda 2030eko Garapen Jasangarrirako Helburuez (GJH) kontzientziatzea eta helburuok herritarren artean zabaltzea.

Helburu horiek denak eskuratzeko, aurretik legeak ezarritako baldintzak beteta, ondoko

JARDUERA hauek burutuko dira:

- Hirugarrenekin, publiko zein pribatuekin, hitzarmenak egitea, eraikin publiko edo pribatuetako lurzorua edo azalerak okupatu ahal izateko, elkartekideen etxebizitza eta lokaletan energia sortzen eta hornitzen duten instalazio fotovoltaikoak jartzeko.
- Instalazio fotovoltaikoak jartzea energia berdea sortzeko eta autokontsumo partekatuko erregimenean aprobetxatzeko egokienak diren eraikin publiko edo pribatuetan.
- Energia fotovoltaikoa ez den beste iturri batzuen bidez energia berriztagarria sortzearekin, mugikortasun iraunkorarekin, energia berriztagarri termikoekin, energia-eraginkortasunarekin eta eskaeraren kudeaketarekin lotutako proiektuak gauzatzea.
- Energia merkaturatzen duten enprekin akordioak lortzea, instalazio fotovoltaikoaren/fotovoltaikoen sorkuntzak betetzen ez dituen hornidura-beharretarako, elkartekideei % 100 berriztagarria den energia-horniduraren baldintzak zehazteko.
- Herritarrak prestatzeko eta ahalduzko jarduerak sustatzea, gertuko, tokiko eta iraunkortasuneko ingurunean sortutako energia-kontsumoaren alde.
- Ekimenak sustatzea energiarekiko kalteberatasun-egoerei aurre egiteko.
- Helburu berberak dituzten tokiko beste energia-komunitate edo erkidego batzuekin lankidetzan aritzea eta laguntzea, herri-mailan eta herritarren artean energia-trantsizioa sustatzeko, baterako ekimenen bitartez eta esperientziak trukatzuz.
- Erakunde pribatuekin eta publikoekin lankidetzan aritzea politika sektorialak eta jardueraprogramak diseinatzen, gauzatzen eta ebaluatzen.
- Elkartearen helburuak betetzeko, era guztietako eta edozein titulutako ondasunak eskuratzeko, edukitzea eta erabiltzea, eta mota guztietako egintzak, kontratuak eta negozio juridikoak egitea. Jaraunspenak eta legatuak, edonola ere, inbentario-onuraren arabera onartuko dira.

Aurreko atalean deskribatutako jardueraz gain, Elkartek, bere helburuak betetzeko, honakoak egin ditzake :

- Jarduera ekonomikoak garatu, bere helburuak betetzeko edo helburu horrekin baliabideak biltzeko, merkataritza-jarduerak direnak eta, bereziki, merkaturako ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituztenak izan ezik.
- Era guztietako eta edozein titulutako ondasunak eskuratu, eduki eta erabili, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egin.
- Era guztietako egintzak gauzatzea, legeen edo Estatutu hauen arabera.

EGOITZA SOZIALA

3. artikulua.- Elkartek honen egoitza soziala hau da: Untzaga plaza, 1 - 20660, Eibar (Gipuzkoa).
Elkartek beste lokal batzuk izan ditzake Autonomia Erkidegoaren esparru barruan, Batzar Nagusiak hala erabakitzen badu.

LURRALDE-ESPARRUA

4. artikulua.- Bere eginkizunak garatzeko lurralde-esparrua, nagusiki, Eibarko udalerrria izango da. Hala ere, bere helburuak betetzeko eta bere jarduerak garatzeko, lurralde-esparru horretatik kanpo zabaldu eta jarduerak egin ditzake.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. artikulua.- Elkartea mugarik gabe eratzen da, eta Batzar Berezi Orokorrek hala erabakita bakarrik desegingo da, VI. kapituluan xedatutakoaren arabera, edo legeetan aurreikusitako arrazoiren batengatik.

Elkartearen barne-antolaketak eta funtzionamenduak demokratikoak behar dute izan, aniztasuna erabat errespetatuz. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarritzko eskubidearen edozein alderdi betetzen ez duten itun, estatutu-xedapen eta akordio.

BIGARREN KAPITULUA

GOBERNU- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

6. artikulua.- Elkartearen gobernu eta administrazioa bazkideen Batzar Nagusiaren (“Batzar Nagusia”) kargu egongo dira. Era berean, Elkartek honako organo hauek izango ditu: Lehendakaritza, Idazkaritza eta Diruzaintza. Batzarrak Zuzendaritza Batzorde bat eratzeko erabakia har dezake, gobernu eta zuzendaritza iraunkorreko kide anitzeko organo gisa. Gutxienez hiru kidek osatuko dute (lehendakaritza, idazkaritza eta diruzaintzako karguak dituztenak) eta gehienez 5 kidek.

BATZAR NAGUSIA

7. artikulua.- Batzar Nagusia, Elkartearen bazkide diren pertsona fisiko edo juridiko guztiek osatua, pertsona horien borondatea adierazteko organoa da. Batzar Nagusiaren ahalmenak hauek dira:

- a. Elkartearen jarduteko plan orokorrari onarpena ematea.
- b. Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c. Batzarra eratu ondoren, Zuzendaritza-Batzarraren kudeaketa onartzea.
- d. Estatutuak aldatzea.

- e. Elkartea desegitea.
- f. Elkarteko Lehendakaritza, Idazkaritza eta Diruzaintza karguak betetzen dituzten pertsonak hautatzea eta kargubabetzea eta, halakorik bada, Elkarteko gobernu-organoa osatzen duten gainerako kideak hautatu eta kargutik kentzea, baita horiek gainbegiratu eta kontrolatzea ere.
- g. Gehieneko bazkide-kopurua ezartzea, instalazio fotovoltaikoak energia sortzeko duen gaitasunaren arabera.
- h. Beste elkarte batzuekin federatzeko eta konfederatzeko egintzak, edo horietako batzuk uztea.
- i. Ondasun higiezin erabilera edo besterentzea onestea.
- j. Zuzendaritza Batzordeko kideei gastuak konpentsatzeko erabakia, halakorik bada.
- k. Kuota arruntak edo apartekoak finkatzea; hala ere, Batzar Nagusiak ahalmen hori gobernu-organoari eskuordetu ahal izango dio, berariaz hartutako erabakiaren bidez.
- l. Elkartekideak behin betiko banantzeko erabakia hartzea.

- m. Instalazio fotovoltaikoaren ekoizpena estaltzen ez duen energia-hornitzailea aukeratzea, urtero, elkartekideentzat. Hornitzaileen konparaziozko proposamena prestatzeko, kanpoko aholkularitza kontratatu ahal izango da.
- n. Autokontsumo partekatuarekin lotutako erregulazioa aldatzen bada eta ordutegi-banaketaren koefizienteak edo koefiziente dinamikoak ezartzeko aukera ematen bada, Batzar Nagusiak erabakiko du ea Elkarreak aukera horri heltzen dion, eta, erabaki horren ondorioz, egin beharreko aldaketa operatiboak egin.
- o. Beste organo sozial bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

8. artikulua.- Batzar Nagusiak ohiko bilkurak eta ezohiko bilkurak egingo ditu.

9. artikulua.- Batzar Orokorrerako deia urtean behin egin beharko da, gutxienez, 7. artikuluko a), b) eta c) ataletan aurreikusitako erabakiak hartzeko.

10. artikulua.- Batzar Nagusiak bilkura berezia egingo du Zuzendaritza Batzordek hala erabakitzen duenean, bai bere ekimenez, bai elkartekideen % 20k hala eskatu duelako. Bilera egiteko arrazoiak eta helburua adieraziko ditu, eta, betiere, gai hauek ezagutu eta erabakitzeko:

- a. Estatutu-aldaketak.
- b. Elkarrea desegitea.

11. artikulua.- Batzar Orokorraren deialdiak idatziz egingo dira, bitarteko telematikoak barne, eta bilera non, noiz eta zer ordutan izango den adieraziko da, bai eta gai-zerrenda ere, aztertu beharreko gaiak zehazki adierazita. Deialdiaren eta Batzarra lehenengo deialdian egiteko adierazitako egunaren artean gutxienez bost eguneko tarte utzi beharko da. Era berean, bidezkoa bada, Batzarra bigarren deialdian zein egun eta ordutan bilduko den adierazi ahal izango da; deialdi bien artean ezin izango da ordu erditik beherako denbora-tarterik egon.

Batzar Nagusiak, ohikoak nahiz bereziak, baliozkoak izango dira lehen deialdian botoa emateko eskubidea duten bazkideen herena bertaritzen denean, eta bigarren deialdian, boto-eskubidea duten elkartekideen kopurua edozein dela ere.

12. artikulua.- Batzar Nagusiaren akordioak bertaratu direnen edo ordezkatuaren gehiengo soilaz hartuko dira, baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Hala ere, bertaratutako edo ordezkaturako pertsonen gehiengo osoa (erdia + 1) beharko da honako erabaki hauek hartzeko:

- a. Elkarrea desegitea.
- b. Estatutuak aldatzea.
- c. Ondasunak erabiltzea edo besterentzea.

13. artikulua.- Bazkideek beste edozein bazkideren esku utzi ahal izango dute beren ordezkaritza, Batzar Orokorretara joateko eta, hala badagokio, bozkatzeko. Eskuordetze horretan, botoaren zentzua adierazi ahal izango da. Boto-eskuordetza hori idatziz emango da eta Batzarreko idazkariaren esku egon beharko du bilkura egin baino lehen. Beste herri batean bizi diren bazkideek, hau da, Elkartearen egoitza ez dagoen herri batean, ordezkaritza frogatzen duen agiria postaz bidali ahal izango dute, bitarteko telematikoak barne.

Elkartekide bakoitzak ezin izango ditu bost bazkide baino gehiago ordezkatu.

14. artikulua.- Batzarra eratu, deitu, bere bilkurak egin, erabakiak hartu eta aktak bidali ahal izango ditu, bertaratuta nahiz urrutitik edo telematikoki.

Telematikoki edo urrutitik egiten diren bilkuretan, kideak leku desberdinetan egon ahal izango dira, baldin eta bitarteko elektronikoen bidez (telefono bidezkoak eta ikus-entzunezkoak ere halakotzat jotzen dira) ziurtatzen bada kideen identitatea, haien adierazpenen edukia, adierazpen horiek egiten diren unea, eta baita haien arteko interkomunikazioa denbora errealean eta saioa egin bitartean.

Bilera edo bilkura Batzar Orokorreko kide gehienak dauden tokian egin dela ulertuko da. Kopuru bera bada, bilkura zuzentzen duen Batzar Nagusiko kidea dagoen tokian.

Batzarrak erabakiak idatziz eta bilkurarik egin gabe hartzea ere baliozkoa da, prozedura honi jarraikiz:

- Bozkatu behar den gaia posta elektronikoz jakinaraztea kide guztiei, gutxienez bost egun lehenago, eta horrekin batera, bozkatuko den gaiari buruzko informazio garrantzitsua ematea, erabakia hartzeko behar den gehiengoa adieraziz.
- Bozketarako epea irekitzea, gutxienez hamar egunekoa. Epe horretan elkartekideek beren botoa posta elektronikoz bidez eman dezakete.
- Botoa eskuordetzaz emanaz gero, ordezkari frogatzen duen agiria posta bidez aurkeztu beharko da.
- Elkartekideei posta elektronikoz jakinaraziko zaie bozketaren emaitza eta hartutako erabakiaren edukia.

Erabakiak idatziz eta bilkurarik egin gabe hartzeko, bazkideek Idazkaritzari jakinaraziko diote beren posta elektronikoen helbidea, jakinarazpen horiek jasotzeko eta botoa hortik emateko.

Elkarteak aplikazio telematiko bat jarriko du elkartekideen eskura akordio horiek hartu ahal izateko. Aplikazio horretarako, bazkide bakoitza identifikatu egin beharko da posta elektronikoko helbide baten bidez eta pasahitz baten bidez. Aplikazioa erabiltzen duten bazkideentzat erabakiak hartzeko prozedura aurreko atalean azaldutako prozedura berbera izango da.

Atal honetan aurreikusitako kasuetan, erabakiak Elkartearen egoitza sozialean hartu direla ulertuko da, eta emandako azkenengo botoa jasotzen den azken egunean.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

15. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea, 6. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eratu ondoren, bera izango da Elkarteko zuzendaritza iraunkorreko kide anitzeko organoa, Batzar Nagusiak emandako xedapenen eta jarraibideen arabera. Bazkideak baino ezin dira ordezkaritza-organoko kide izan.

Zuzendaritza Batzordea gutxienez hiru kidek osatuko dute (Elkartearen Lehendakaritza, Idazkaritza eta Diruzaintzaren karguak dauzkatenak) eta gehienez 5 kide izango ditu.

16. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideak, bidezko arrazoirik gabe, bilera horietara bi aldiz jarraian edo hiru aldiz jarraian ez joateak kargugabetzea ekarriko du.

Edozelan ere, Zuzendaritza Batzordeko kideek beren ordezkaritza Batzordeko beste kide baten esku utzi ahal izango dute. Eskuordetze horretan botoaren zentzua adierazi ahal izango da.

17. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideak —25. eta 27. artikuluetan aurreikusitakoa izan ezik—, zozketa bidez hautatuko dira bazkideen artean, urtebeterako, Batzar Orokorraren berariazko errebokatzerik ez badago, eta urtebeteko hurrengo agintaldian ezingo dira berriz hautatu, aldi iragankorrean izan ezik, orduan posible izango baita Zuzendaritza Batzordeko kideak berriz hautatzea.

Izendatutako pertsonak hamar eguneko epea izango dute Zuzendaritza Batzordeari beren ordeztu beste bazkide bat proposatzeko, baldin eta bazkide horren onarpen-idazkiarekin batera aurkezten bada eta aurreko agintaldiko Zuzendaritza Batzordeko kide izan ez bada.

18. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko azpiko baldintza hauek ezinbesteko baldintzak izango dira pertsona fisikoentzat eta pertsona juridikoen ordezkariarentzat:

- a. Adinduna izatea, eskubide zibilen erabilera osoa izatea eta indarrean dagoen legedian ezartzen diren bateraezintasun-egoeretakoren batean ere ez egotea.
- b. Estatutuaren aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- c. Elkarteko kide izatea.

19. artikulua. Zuzendaritza Batzordearen kargua, Batzar Nagusiak izendatu ondoren, onartzen denean hartuko da.

Batzar Nagusiak erabaki dezake Zuzendaritza Batzordeko kideen dietak eta gastuak ordaintzea, kasua bada.

Elkarteak erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatuko du, Zuzendaritza Batzordeko kideen jarduna estaliko duena, Batzordeari dagozkion lanetan ari direnean.

20. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko pertsonak kargua utziko dute kasu hauetan:

- a. Agintaldia amaitzeagatik
- b. Dimisioa emateagatik.
- c. Bazkide izateari uzteagatik, edo ezintasun-egoeran sartzeagatik.
- d. Batzar Orokorrak erabakitako errebokatzeagatik, Estatutu hauetako 16. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuta.
- e. Heriotzagatik.

Aurreko a) atalean aurreikusitako arrazoiagatik kargua uzten denean, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean segituko dute harik eta lehen Batzar Orokorra egin arte eta

Batzar horrek kargu bakoitza hautatuko du.

Gainerako kasuetan, hau da, b), c), d) eta e) kasuetan, Zuzendaritza Batzordeak berak beteko du hutsik geratu den kargua, behin-behineko izendapen baten bidez. Izendapen hori Batzar Nagusiari aurkeztuko zaio, berretsi edo atzera bota dezan. Azken kasu horretan, dagokion izendapena egingo da.

Organo honetan egiten diren aldaketa guztiak Elkarteen Erregistro Orokorrari jakinaraziko zaizkio.

21. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea eratu ondoren, 6. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako eginkizun hauek izango ditu:

- a. Elkarteen ohiko kudeaketa zuzentzea, Batzar Nagusiak emandako jarraibideen arabera eta haren kontrolpean.
- b. Instalazio fotovoltaikoaren sustapena, exekuzioa, mantentze-lana eta finantzaketa kontratatzea. Eginkizun horretatik kanpo geratzen da, instalazio fotovoltaikoaren ekoizpenak estaltzen ez duen energia-portzentajearen arabera, elkartekideentzako energia-hornitzailearen urteko kontratazioa, 7 m) artikulua Batzar Nagusiari esleitzen dion eginkizuna.

- c. Kudeaketa arrunta eta horren ondoriozko kontratazioa egitea, bai eta instalazio fotovoltaikorako titulartasun pribatuko edo publikoko espazioak laga izanaren ondoriozko baldintzak betetzea ere.
- d. Elkarateak garatu behar dituen jarduerak programatzea.
- e. Gastuen eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera Batzar Nagusiari aurkeztea, onets ditzan.
- f. Batzar Nagusiaren bilkuretako gai-zerrenda prestatzea eta ohiko eta ezohiko Batzar Nagusien deialdiak erabakitzea.
- g. Bazkideek egiten dituzten proposamenei edo iradokizunei erantzutea, eta horretarako behar diren neurriak hartzea.
- h. Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta haien hutsuneak betetzea, elkarteen arloan indarrean dagoen legediaren arabera, betiere.
- i. Batzar Orokorrek berriazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenez baliatzea, betiere bere eskumen eskusibokoak ez badira.
- j. Batzordeak sortzea, aldi baterakoak edo iraunkorrak, eta haien osaera, eskumenak eta funtzionamendua erabakitzea, Batzar Nagusiari dagozkion eginkizunei kalterik egiteke. Oro har, batzorde horiek proposatzaileak izango dira, eta, salbuespen gisa, erabaki ahal izango da erabakiak lotesleak izango direla, inguruabar bereziek hala justifikatzen dutenean.

22. artikulua.- Lehendakaritzak erabakitzen duen guztietan egingo ditu bilerak Zuzendaritza Batzordeak, bere ekimenez edo gutxienez kide bik eskatuta. Elkarteen lehendakaria izango da mahaiburu, eta, hura ez dagoenean, lehendakariordea, halakorik bada, eta biak ez daudenean, Batzordeko kide zaharrena.

Batzordearen akordioak baliozkoak izateko, bertaratutako pertsonen botoen gehiengoz hartu beharko dira, eta batzordekideen erdiak bertan egon beharko du. Berdinketa gertatuz gero, bilkurako buruaren botoa kalitatezkoa izango da.

Idazkariak bilkuren akta jasoko du eta dagokion Liburuan jasoko da.

Zuzendaritza Batzordea eratu ahal izango da, deiak egin ditzake, bilkurak egin, erabakiak hartu eta aktak bidali, bertaratuta nahiz telematikoki, 14. artikulua Batzar Nagusirako ezartzen duen prozedura berberari jarraikiz.

ELKARTEAREN BESTE ORGANO BATZUK

LEHENDAKARITZA

23. artikulua.- Elkartearen legezko ordezkariak hartzen du bere gain, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak gauzatu ditu, bien lehendakari izango baita.

24. artikulua.- Ahalmen hauek dagozkie:

- a. Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Nagusiak egiten dituzten bilkuretarako deia egin, bilkuretako buru izan eta bilera bateko eta besteko eztabaidak zuzentzea, eta bozketetan berdinketa izanez gero, kalitatezko botoa ematea.
- b. Elkartearen jardura-plana proposatzea Batzar Nagusiari eta, eratuta dagoenean, Zuzendaritza Batzordeari, bere eginkizunak bultzatuz eta zuzenduz.
- c. Balioz adostutako ordainketak agintzea.
- d. Sor daitezkeen premiazko arazoak konpontzea, eta horren berri ematea Zuzendaritza Batzordeari egiten duen lehen bilkuran.

- e. Batzar Orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenez baliatzea, betiere bere eskumen eskusibokoak ez badira.

IDAZKARITZA

25. artikulua.- Bazkide izateko eskabideak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta bazkideen Liburua eramatea, Akta-Liburua formatu elektronikoa gorde eta idaztea dagokio. Aktan honako hauek jasoko ditu: bertaratutakoak, eman diren ordezkariak, bilkuren tokia, eguna eta ordua, gai-zerrenda, hartutako erabakiak egin diren bozketen emaitzarekin, eta sortu diren eztabaiden aipamen laburra. Behar diren ziurtagiriak emango ditu.

Halaber, elkarteen arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzen direla zainduko du, erakundearen dokumentazio ofiziala zainduko du, Liburuen eta Elkarteko artxiboen edukia ziurtatuko du, eta zuzendaritza-batzordeak izendatzeari eta helbide soziala aldatzeari buruzko nahitaezko komunikazioak agintari eskudunei igorriko dizkie.

Bere titulartasuneko estalkiak edo azalera laga dituen erakunde fundatzaile edo sustatzaileetako batek Elkarteko kide izaten jarraitzea erabakitzen badu Xedapen Iragankorrean aurreikusitako epea amaitu ondoren, Idazkaritzako eginkizunak bete ahal izango ditu Elkarteko kide izaten jarraitzen duen bitartean eta udal-estalki eta/edo -azalera Elkartearen alde lagatzeko Akordioa indarrean dagoen bitartean. Lagapenaren baldintza betetzen duten entitate fundatzaile edo sustatzaile batzuek interes hori partekatzen badute, haien artean adostuta zehaztuko da nork beteko dituen eginkizun horiek.

DIRUZAINITZA

26. artikulua.- Egindako sarreren eta ordainketen berri emango du, diru-sarreren eta gastuen urteko aurrekontua formalizatuko du, bai eta aurreko urteko kontuen egoera ere. Horiek Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar zaizkio, Zuzendaritza Batzordeak, Batzar Nagusiaren onespeneren mende jar ditzan.

ZUZENDARITZA BATZORDEAREN BOKALAK

27. artikulua.- Beren karguari dagozkion betebeharrak izango dituzte Zuzendaritza Batzordeko kide gisa (elkartearen zuzendaritza eta kudeaketa arrunta), baita Batzordeak agintzen dizkionak ere.

Bere titulartasuneko estalkiak edo azalera laga dituen erakunde fundatzaile edo sustatzaileetako batek Elkarteko kide izaten jarraitzea erabakitzen badu Xedapen

Iragankorreetan aurreikusitako epea amaitu ondoren, bokal-eginkizunak bete ahal izango ditu Elkarteko kide izaten jarraitzen duen bitartean eta udal-estalki eta/edo -azalerak Elkartearen alde lagatzeko Akordioa indarrean dagoen bitartean. Lagapenaren baldintza betetzen duten entitate fundatzaile edo sustatzaile batzuek interes hori partekatzen badute, haien artean adostuta zehaztuko da nork beteko dituen eginkizun horiek.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK, BALDINTZAK ETA ONARTZEKO PROZEDURA ETA BAZKIDE-MOTAK

28. artikulua.- Elkartekoak izan daitezke bazkide izan nahi eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

- Pertsona fisikoak: adinez nagusia edo adingabe emantzipatua izatea, eta bere eskubidea erabiltzeko legezko baldintzarik ez izatea, eta ebazpen judizial irmo baten bidez gaitasun mugatua ez izatea.
- Pertsona juridiko publiko edo pribatuak: horretarako eskumena duen organoak bere baitan baliotasunez hartutako erabakiaren kopia aurkeztu beharko dute, eta bertan elkartegintzarako borondatea adierazi beharko dute, bai eta pertsona horiek nor izango diren ere.

29. artikulua.- Bazkide fundatzaileztat hartuko dira eraketa-akta sinatu duten pertsona fisiko edo juridikoak.

Bazkide sustatzaileztat hartuko dira elkartean sartzen diren pertsona fisiko edo juridikoak, Elkartea abian jartzea bultzatzeko xedapen iragankorrak aipatzen duen aldi iragankor horretan. Bazkide sustatzaileak bazkide osoen eskubide eta betebeharrak izango ditu, xedapen iragankorraren 5. puntuan xedatutakoaren arabera.

Bazkide osotzat hartuko dira bazkide gisa baliozkotasunez onartu diren gainerako bazkideak.

30. artikulua.- Elkartean bazkide oso izan nahi dutenek idatziz edo horretarako propio egokitutako bide telematikoz eskatuko diote Elkarteko Idazkaritzari, eta horrek Zuzendaritza Batzordeari helaraziko dio eskaera; hark Batzordeak onartu ala ez erabakiko du. Batzar Nagusian gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango da.

Bazkide oso izaera onarpen-kuota ordaindu ondoren gauzatuko da, Batzarrak hala xedatu eta bazkidearen onarpena ebatzi badu. Elkarteko kide diren pertsonen kopurua energia-hornidura jaso dezaketenetara mugatuko da, Elkartearen titulartasuneko instalazioen sorkuntza-ahalmenaren arabera. Kopuru hori betez izangaien zerrenda bat egingo da ondoren datorren paragrafoan deskribatuko diren irizpideen arabera ordenatuta.

Elkartean sartzeko, eskaera egiteko epea irekiko da jendaurrean udalerriko bizilagunentzat eta, hala badagokio, saltoki guztientzat, autokontsumo partekatuaren erregimenari buruz indarrean dagoen legeriaren arabera. Erregulazio horrek une bakoitzean xedatzen duenari jarraituko zaio.

Bere bokazio irekia dela eta, TEKek etengabe bilatuko du lurraldeko ahalik eta bizilagun eta saltoki txiki gehienek parte hartzea. Horretarako, TEK autokontsumorako instalazio berrien (eguzki-energia, eolikoa, hidraulikoa, etab.) titular izan eta horiek kudeatzen dituen heinean, bazkide berriak sartuko dira.

Eskaera-kopuruak gaintitzen badu instalazioaren potentziaren arabera hornidura egokia jaso dezaketenak, bazkideak onartzeko organo eskudunak lehentasun-irizpideak aplikatuko ditu, objektiboak edo sozialak, zaurgarritasun energetikoko egoerei erantzuteko. Beste irizpiderik zehaztu ezean, behar bezala formalizatutako alta-eskaerak aurkezteko ordena edo hurrenkera aplikatuko da.

Elkartearen titulartasuneko instalazio fotovoltaikoak sortutako hornidurara iristen den etxebizitza eta/edo lokal bakoitzeko bazkide bat onartuko da. Horretarako, onartua izateko, nahikoa izango da etxebizitza eta/edo lokala erabiltzeko eskubidea ematen duen edozein titulu, onarpen-eskaerarekin agiri bidez egiaztatu beharko dena. Elkartean onartzeak ez du inolako adierazpenik sortuko etxebizitza eta/edo lokala erabiltzeko tituluaren baliozkotasunari edo nahikotasunari buruz.

Bazkide izatera iristen den etxebizitzako pertsona bat etorriko da etxebizitza- edo lokaleko elektrizitate-kontratuaren titularrarekin.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

31. artikulua.- Bazkide orok ditu eskubide hauek:

1. Elkartearen bizitzan aktiboki parte hartzea eta Estatutu hauen arabera ekimenak proposatzea.
2. Energia-hornidura Elkarteak adostutako baldintzetan jasotzea Estatutu hauetan xedatutakoaren arabera.
3. Elkarteen Legearen edo Estatutuen aurkako akordioak eta jarduketak inpugnatzea, berrogei egun naturaleko epean, demandatzaileak inpugnatutako erabakiaren edukia ezagutu edo ezagutzeko aukera izan duenetik kontatzen hasita.
4. Informazioa jasotzea elkartearen gobernu- eta ordezkari-organoen osaraz, kontuen egoeraz eta bere jardueraren garapenaz.
5. Noiznahi ezagutzea elkarteko gainerako bazkideen nortasuna, diru-sarreraren eta gastuen egoera eta elkartearen jardueraren garapena, datu pertsonalak babesteko araudian aurreikusitako moduan.
6. Batzar Nagusietarako deia jasotzea, Batzarretara joatea eta horietan hitz egiteko eta botoa emateko eskubideaz baliatzea. Horretarako, beste bazkide batzuei eman ahal izango die ordezkariak.
7. Estatutu hauen arabera parte hartzea elkarteko organoetan, organo horietarako hautesle eta hautagai izanik.
8. Indarrean dagoen legeriak aurreikusten duen bazkideen fitxategian agertzea, eta

- elkartearen ikurra erabiltzea, halakorik bada.
9. Estatutuen eta, halakorik bada, Barne-Araudiaren ale bat izatea, eta zuzendaritza-organoetan eskaerak eta kexak aurkeztea.
 10. Elkartearen ekitaldi kolektiboetan parte hartzea, eta bazkideen erabilerarako elementuez gozatzea (elkartearen lokala, liburutegiak, etab.).
 11. Diziplina-neurriak hartu aurretik, entzuna izateko eskubidea eta hartutako neurrien arrazioen berri izatea, bazkide gisa dituen betebeharrak ez betetzeagatik baino ezin baitira izan.
 12. Urtero kontratatzea —instalazio fotovoltaikoaren/fotovoltaikoen ekoizpenak estaltzen ez dituen hornidura-beharretarako— Batzar Nagusiak hautatutako merkaturatzailea, merkaturako eskaintza lehiakorrenen azterketa batean oinarrituta, Estatutu hauetan xedatutakoaren arabera.

32. artikulua.- Bazkideen betebeharrak dira:

- a. Elkartearen helburuak partekatzea eta helburu horiek lortzen laguntzea.
- b. Behar diren egintza material, juridiko eta ekonomikoak egitea, beren etxebizitzak edo lokalak energia instalazio fotovoltaikotik jaso dezaten, Elkarteko organoek ezarritako moduan.
- c. Bazkide bakoitzari dagozkion kuotak, derramak eta bestelako ekarpenak ordaintzea Estatutuen arabera.
- d. Estatutuetatik sortzen diren gainerako betebeharrak betetzea.
- e. Onartzea Zuzendaritza Batzordeko kide izendatzea, baldin eta bazkideak bere ordeztu beste pertsona bat proposatzen ez badu, 17. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- f. Elkarteko gobernu-erakundeek balio osoz hartutako akordioei men egitea eta betetzea.
- g. Elkartekide izateak ez du esan nahi bertan derrigorrean egon behar denik. Hala ere, indarrean dagoen legeriak 4 hilabeteko epea ezartzen du gutxienez instalazio fotovoltaiko baten kontsumoari esleitutako koefizientei eusteko.
- h. Horrek esan nahi du, erregulazio horrek indarrean jarraitzen duen bitartean, elkartean baja emateko eskaera egin ondoren, eskaera hori koefizienteen azken esleipenetik 4 hilabete

igarotako denboraren arabera murriztuko den epea. Legeriak epe horiek murrizten dituen heinean, baja-eskaera epe laburragoetan gauzatu ahal izango da.

Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Lege Organikoaren 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, inskribatu ondoren, Elkarteak zuzenean erantzungo du bere betebeharrengatik, oraingo eta geroko ondasun guztiekin, eta elkartekideek ez dute erantzukizun pertsonalik izango inskribatutako elkartearen betebeharrengatik, lege horren 18. artikuluan ordezkaritza- eta gobernu-organoen erantzukizunari buruz ezarritakoaren kaltetan gabe.

BAZKIDE-IZAERA GALTZEA

33. artikulua.- Bazkide-izaera kasu hauetan galduko da:

1. Heriotzagatik edo pertsona juridikoak desegiteagatik.
2. Elkartetik borondatez banantzeagatik.
3. Zehapenagatiko banantzeagatik, inguruabar hauetako bat gertatzen denean: Estatutu hauetatik sortutako betebeharren edo Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak balioz hartutako erabakietatik eratorritakoen ez-betetze larria, behin eta berriz eta nahita egina.

ZEHAPEN-ARAUBIDEA

34. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeak elkartekideei zehapena jarri ahal izango die Estatutuak, Batzar Nagusiaren edo Zuzendaritza Batzordearen erabakiak behin eta berriz hausteagatik. Zuzendaritza Batzordeak erabakitako behin betiko banantzearekin zehatuko diren arau-hausteak, errepikatzeke premiarik gabe, hauek izango dira:

1. Aldizkako bi kuota jarraian ez ordaintzea.
2. Batzar Nagusiak erabakitako derramak ez ordaintzea.

Zehapenak honako hauek izan daitezke: eskubideak etetea, 15 egunetik hilabetera, harik eta behin betiko banantzea iritsi arte, Estatutu hauetan aurreikusitako moduan.

Horretarako, Lehendakaritzak ikerketa bati ekitea erabaki dezake, zehagarriak izan daitezkeen jokabideak argitzeko. Jarduketak Idazkaritzak gauzatuko ditu, instrukzio-organo legez, eta Zuzendaritza Batzordeari bidezkoak diren neurriak hartzeko proposamena egingo dio.

Zuzendaritza Batzordeari dagokio zehapenak ezartzea, idazkariak parte hartu gabe (instrukzio-organoa delako), eta aldez aurretik interesdunari entzun beharko zaio. Erabaki hori beti izango da arrazoitua, eta haren aurka errekurtoa aurkeztu ahal izango da Batzar Nagusian. Zuzendaritza Batzorderik ez dagoelako zehapena ematea Batzar Nagusiari badagokio, haren erabakiak bukatuko du prozedura.

35. artikulua.- Bazkide bat elkartetik banantzeko ustezko arrazoiren batean eroriz gero, Estatutu hauetatik edo Batzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordeak balioz hartutako erabakietatik eratorritako betebeharrak modu larrian, behin eta berriz eta nahita ez betetzeagatik, Lehendakaritzak aurretiazko eginbide batzuk egiteko agindu ahal izango dio Idazkaritzari, behar den informazioa lortzeko. Informazio hori ikusita, Lehendakaritzak jarduketak artxibatzeko edo banantzeko zehapen-espeditentea irekitzeko agindua eman ahal izango du.

36. artikulua.- Banantzeko zehapen-espeditentea irekiz gero, Elkarteko idazkaritzak, gertakariak egiaztatu ondoren, idazki bat bidaliko dio interesdunari, egozten zaizkion karguen berri emateko, eta hamabost eguneko epean erantzun ahal izango die, beren defentsan egoki deritzona alegatuz. Epe hori igaro ondoren, betiere, gai hori Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilkurako gai-zerrendan sartuko da, eta horrek dagokiona erabakiko du, espeditentearen instruktore izan den idazkariaren botorik gabe.

Behin-behineko banantze-erabakia interesdunari jakinaraziko zaio eta banantze-espeditentea Batzar Nagusiari igorriko zaiola jakinaraziko zaio. Honek, bidezkoa bada, behin betiko banantze-erabakia hartuko du. Bien bitartean, Zuzendaritza Batzordeak erabaki ahal izango du erruztatuari bazkide gisa dituen eskubideak kentzea, eta, Zuzendaritza Batzordeko kide izanez gero, kargua bertan behera uztea erabaki beharko du.

Banantze-espeditentea egiten den lehen Batzar Nagusira igorriko da. Hiru hilabetez ez bada

bilerarako deirik egiten, Batzarrak hartutako erabakia berretsi edo atzera bota dezan egin beharko da.

Elkarteko idazkaritzak espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak erruztatuak aurkeztutako idazkiaren berri eman diezaion Batzar Nagusiari, eta gertaeren berri behar bezala eman dezan, Batzarrak dagokion erabakia hartu ahal izan dezan.

37. artikulua.- Behin betiko banantze-erabakia arrazoitua izango da beti, eta interesdunari jakinarazi beharko zaio. Interesdunak auzitegietara jo ahal izango du, dagokion eskubidea erabiliz, erabakia legearen edo Estatutu hauen aurkakoa dela uste duenean.

38. artikulua.- Bazkide bati elkartetik banandu dela jakinarazten zaionean, dela borondatez, dela zehapenaren ondorioz, elkartearetikiko dituen betebeharrak betetzeko eskatuko zaio.

LAUGARREN KAPITULUA

AURREKONTU-ARAUBIDEA

39. artikulua.- Elkartearen hasierako ondarea deuseza da.

Elkartek baliabide ekonomiko hauek aurreikusten ditu elkarte-jarduerak garatzeko:

- a. Ondare-ekarpenak edo derramak.
- b. Erabakitzen diren aldizkako kuotak, 40. artikuluan aurreikusitakoarekin bat.
- c. Dagozkion ondasun eta eskubideen produktuak, eta legez jasotzen dituen dirulaguntzak, legatuak eta dohaintzak edo eska ditzakeen maileguen ondoriozko zenbatekoak.
- d. Zuzendaritza Batzordeak erabakitako legezko jardueren bidez Elkartek lortzen dituen diru-sarrerak, betiere Estatutuen helburuen eta 2. artikuluan araututako jardueren barruan.

Zuzendaritza Batzordeak zehaztu ahal izango du Elkartek jasotzen dituen baliabide ekonomikoen xedea, baldin eta helburu zehatz eta jakin baterako ez badira, Batzarrak ezarritako jarraibideen arabera eta Estatutu hauetan ezarritako Elkartearen xedeen arabera.

Elkartearen baliabide ekonomikoek helburu finalista bat izan dezakete, hau da, Elkartek jasotzen dituen baliabide ekonomikoak, proiektu, helburu edo xede jakin bat izatea, dela jarduera motaren arabera, dela horiek gauzatzen diren udalerrirengatik, dela bi inguruabar bi horiengatik. Zuzendaritza Batzordea behartuta dago funts horien helburu finalista betetzera, baldin eta Elkartearen xedeekin batera badator.

ELKARTE- ETA EKONOMIA-EKITALDIA urtekoa izango da, eta urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko da.

Elkartek jarduera ekonomikoak gauzatzearen ondorioz lortzen dituen onurak bere helburuak betetzeko baizik ez dira erabiliko, eta ezin izango dira inola ere banatu bazkide diren pertsonen artean, ez eta haien ezkontideen edo haiekin antzeko harreman afektiboa duten pertsonen artean ere, ez eta haien ahaideen artean ere, ez eta irabazi-asmoa duten pertsona fisiko edo juridikoei doan laga ere.

40. artikulua.- Batzar Nagusiak finka ditzakeen beste kuota edo ekarpenen kaltetan gabe, honako kuota

hauek ezarri dira, nahitaez:

– Onarpen-kuota.

Kuota honen zenbatekoa Batzar Nagusiak une bakoitzean zehazten duena izango da, eta behin edo hiru hilabetez jarraian ordaindu ahal izango da, eta, hala, Elkarteari likidezia eman ahal izango dio bere ordainketa-betebeharrei aurre egiteko.

Onarpen kuota % 50ean itzuliko da elkartekideak urte bi bete baino lehen baja ematen badu.

Kuota horren zenbatekoa Batzar Nagusiak besterik ezin izango du aldatu, eta Elkarteak bere gain hartutako betebeharrak ekonomikoak beti beteko direla bermatuko da.

– Hileko kuota

Kuota horren zenbatekoa esleitutako partaidetzaren 0,5 kW bakoitzeko zehaztuko da, eta hilabete bakoitzeko lehen bost egunetan ordainduko da. Hasierako zenbatekoa Batzar Nagusiak finkatuko du.

Instalazioa bazkideentzat energia sortzen hasten denean hasiko dira bazkideak hileko kuota ordaintzen. Hala ere, hileko kuota une hori baino lehen ordaintzen has daiteke, Batzarrak hala iritziz gero.

Hileko kuotak honako kontzeptu hauek hartzen ditu:

- a) Azpiegitura fotovoltaikoaren erosketa edo Elkarteak horretarako kontratatu duen kredituaren ordainketa.
- b) Instalazio fotovoltaikoaren mantentze-lana eta aseguruaren ordaintzea.
- c) Elkartearen energia-kudeaketa ordaintzea, instalazioaren monitorizazioa eta instalazioak sortzen duen energia osagarriaren erosketa mankomunatu barne.
- d) Elkartearen kudeaketa administratiboa eta operatiboa ordaintzea.
- e) Elkartearen funtzionamenduak eta jarduerak eragindako gainerako gastuak.

Hileko kuotari dagozkion zenbatekoak beheratu eta aldatu ahal izango dira, Zuzendaritza Batzordeak hala erabakita, elkarteak instalazioa egiteko eta/edo bere helburuak betetzeko jasotzen dituen dirulaguntzen zenbatekoaren arabera, edo instalazioa egiteko elkarteak kontratatu duen kredituaren amortizazioen arabera. Nolanahi ere, hileko kuotaren zenbatekoak bermatu beharko du elkarteak bete egiten dituela bere gain hartutako kontratuko betebeharrak.

Hileko kuotaren zenbatekoa urtero handitu ahal izango da, Zuzendaritza Batzordearen erabakiz, mugatzat Kontsumorako Prezioen Indizearen (KPI) urteko balioaren erreferentzia hartuta.

Hileko kuotaren zenbatekoan egiten den aldaketa orok Elkartearen Batzar Nagusiaren erabakia eskatzen du.

Elkartearen kudeaketa operatiboa errazte aldera, elkartean sartzen diren unean, bazkideek kontu-zenbaki bat edo bitarteko telematiko bat emango dute, elkarteak dagozkion kuoten kargua egin dezan. Bazkideek noiznahi alda dezakete kargu-kontua,

Elkarteko Diruzaintzari jakinarazita.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

41. artikulua.- Estatutuen aldaketa bazkideen Batzar Orokor Berezian erabaki beharko da, horretarako berariazko deia eginda. Gobernu- eta administrazio-organoak hiru bazkidek osatuko duten Batzorde Txostengile bat izendatuko du, aldaketa proiektua idatz dezan, hark emandako jarraibideen arabera.

42. artikulua.- Aldaketa-proiektua adierazitako epean idatzi ondoren, Lehendakaritzak egingo den gobernu- eta administrazio-organoaren lehenengo bilkuraren gai-zerrendan sartuko du, eta hark onartu edo, hala badagokio, Batzorde Txostengilera itzuliko du, berriz aztertzeko.

Onartuz gero, gobernu- eta administrazio-organoak hurrengo Batzar Orokor Bereziko gai-zerrendan sartzea erabakiko du, horretarako propio egin edo deitzen denean.

43. artikulua.- Batzarraren deialdiarekin batera, Estatutuen aldaketaren testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzari bidal diezazkioten. Zuzenketa horien berri emango zaio Batzar Nagusiari, baldin eta bilkura egin baino zortzi egun lehenago Idazkaritzaren esku badaude.

Zuzenketak banaka edo taldeka egin ahal izango dira, idatziz egin beharko dira eta beste testu baten alternatiba izango dute. Zuzenketak bozkatu ondoren, Batzar Orokorrak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrera bakarrik izango ditu ondorioak hirugarrenengan.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ERABILERA

44. artikulua.- Hauek izango dira Elkarte desegiteko arrazoiak:

1. Bazkideen borondatez, horretarako deitutako Batzar Orokor Berezian adierazia.
2. Estatutuetan ezarritako epea edo baldintza betetzea.
3. Xurgapena edo beste elkarte batzuekin bat egitea.
4. Legez ezarritako gutxieneko elkartekide-kopurua ez izatea.
5. Desegitea erabakitzen duen epai judizial irmo baten bidez.
6. Elkartearen helburuak betetzeko ezintasuna. Arrazoi hori gertatzen dela ulertuko da Elkarteak, gutxienez, instalazioaren edukieraren % 25 esleituta duten elkartekide-kopuru bat biltzen ez duenean eta, edozein arrazoiengatik, azpiegitura fotovoltaikoa instalatzeko azalera edo energia sortzeko azpiegitura hori bera erabili ezin duenean.

45. artikulua.- Elkartea deseginez gero, desegitea erabakitzen duen Batzar Orokor Bereziak Batzorde Likidatzaile bat izendatuko du, eta dauden funtsen ardura hartuko du.

Bazkideekiko eta hirugarren pertsonetikiko betebeharrak sozialak bete ondoren, soberan geratzen den elkartearen ondarea, halakorik bada, irabazi-asmorik gabeko erakunde bati emango zaio edo irabazi-asmorik ez duten helburuetarako erabiliko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA.

1.- Estatutu hauetan Zuzendaritza Batzordeari buruz egiten diren aipamen guztiak Batzar Nagusiari egindakotzat joko dira, harik eta organo hori 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eratzen den arte.

2.- Elkartea martxan jarri ahal izateko eta Elkartekide izan nahi duten pertsonen elementu nagusiak eta elkarteko kide egiteak dakartzan betebeharrei buruzko informazio zehatza eman ahal izateko, Batzar Kudeatzaileak, aldi baterako aldi horretan, gai hauei buruzko erabakiak hartuko ditu gutxienez:

- ✓ Udal estalkiak Elkarteari lagatzea onartzea, bertan instalazio fotovoltaikoa jartzeko.
- ✓ Instalazioaren finantziaketa.
- ✓ Elkarreak eskatu dituen laguntzak eta dirulaguntzak.
- ✓ Instalazioaren kontratazioa eta instalazio horien exekuzioa gainbegiratzea, egikaritze-aurrekontuaren arabera, betiere.
- ✓ Instalazioaren gauzapena kontratatzea.
- ✓ Instalazioaren aseguruak kontratatzea.
- ✓ Energia Komunitatearen energia- eta administrazio-kudeaketa kontratatzea hiru urtez, instalazioaren mantentze-lana, monitorizazioa eta instalazioaren errendimendua gainbegiratzea barne.

Erabaki horien arabera, aldi iragankorreko Batzar Kudeatzaileak 40. artikuluan aipatzen diren kuoten zenbatekoa zehaztuko du, sartzea erabaki aurretik, bazkide osoek kuota horiek ezagutu ahal izan ditzaten.

3.- Aldi iragankor horretan, bazkide fundatzaileek Elkartearen bazkide sustatzaileak sartzea erabaki ahal izango dute, sustatzaile horiek beren titulartasuneko azalerak eta/edo estalkiak Elkarteari lagatzeko prest daudelako instalazio fotovoltaikoak jartzeko, edo Elkartea martxan jartzeko orduan parte hartzeko prest daudelako. Lanean hasten direnetik aurrera, aldi iragankor horretan hartutako erabakietan parte hartuko dute.

Aldi horretan, gainera, Elkarteak lehendakari bat, idazkari bat eta diruzain bat izango ditu, Estatutu hauetan ezarritakoaren arabera, eta pertsona horiek elkartea eratzeko ekitaldian identifikatuko dira. Elkartearen Batzarrak izendapen horiek aldatu ahal izango ditu aldi iragankorrek irauten duen bitartean, eta beste kide batzuk hautatu esandako lan horiek egiteko.

4.- Bazkide oso guztiak Elkartean sartu ondoren, Batzarrerako deia egingo da, zeinak, onartutako bazkide guztiek osatua, aldi iragankor horri amaiera emango dion.

Elkartearen lehen ohiko Batzarreko gai-zerrendan, puntu hauek agertuko dira gutxienez:

- ✓ Zuzendaritza Batzordea sortzea eta kide-kopurua zehaztea
- ✓ Zuzendaritza Batzordeko kideak zozketa bidez hautatzea.
- ✓ Aldi baterako Batzar Kudeatzailearen jarduketaren inguruko deskargu-txostena
- ✓ Aldi baterako Batzar Kudeatzaileak aurkeztutako kontuen onespena.
- ✓ Hileko kuotaren zenbatekoa finkatzea.

5.- TEK EIBAR Xedapen honen arabera martxan jarri ondoren, aldi iragankor honetan alta eman duten bazkide fundatzaileek eta bazkide sustatzaileek askatasunez eman ahal izango dute baja Elkartean, 4. atalean aipatzen den Batzarra egin ondoren.

Elkarteko kide izaten jarraituz gero, aldi iragankor horretan alta eman duten bazkide fundatzaile edo sortzaileak eta bazkide sustatzaileak ezin izango dira berriz hautatu elkartearen gobernu-organoetako kide gisa, 25. eta 27. artikuluetan aurreikusitako kasuetan izan ezik, baldin eta Udalak edo estalkiak laga dituen erakundeak Elkarteko Idazkaritza lanak egitea edo Batzordekideen Batzordeko kide izatea aukeratzen badu.

Udalak edo toki-erakundeek Elkarteko kide izaten jarraitzea erabakitzen badute, 31. artikuluko 12. puntuan ezartzen den merkaturatzailearekin kontratatzeako eskubidea, aplikagarriak zaizkien kontratazio publikoko arauen kalterik gabe ulertuko da.

Bazkide fundatzaile edo sustatzailearen batek ez badu betetzen autokontsumo kolektiborako lege ezarritako erradioan dagoen herriko bizilagun edo/eta saltoki txiki izaera, baja-eskaera egin beharko da beti, eta ezin izango du elkarteko kide izaten jarraitu.

Baja-eskaera hori xedapen honen 4. atalean aipatzen den Batzarra egin eta berehala egingo da. Aurreko une batean gertatzen bada eta bazkide sortzaileak edo sustatzaileak Elkarteko

lehendakaria, idazkaria edo diruzaina bada, Batzarrak Elkarteko gainerako kideen artean zeregin horiek beteko dituen bat izendatu ahal izango du, Batzarra egiten ez den bitartean.

AZKEN XEDAPENA

Batzar Orokorrak Barne-Araubideko Erregelamendu bat onetsi ahal izango du, Estatutu hauek garatzeko, baina horrek ez ditu inola ere aldatuko Estatutu hauetan jasota dauden aginduak.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA